

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBE KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BATXILERGOA	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1.maila
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	BIOLOGIA ETA GEOLOGIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>	Hizkuntzak, matematika, fisika-kimika, anatomia eta kultura zientifikoa		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Zientzietarako kompetentzia Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia Matematikarako kompetentzia Teknologiarako kompetentzia Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	NAIARA ELORRIAGA SISTIAGA	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018-2019

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
5. Izaten ikasteko kompetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Ikerketak, laborategiko praktikak edo landa-azterketak diseinatzea eta egitea, lan zientifikoaren metodologia aplikatuz, haien garapena balioetsiz eta emaitzak interpretatuz.	<ul style="list-style-type: none"> • Esperimentuak diseinatu eta egiten ditu. • Datu esperimentalak bildu, antolatu eta kualitatiboki eta kuantitatiboki interpretatu. • Emaitzak kritikoki interpretatu, eta hipotesia baieztatzeko edo ezeztatzeko azalpen arrazoituak ematen ditu. • Txostenak egiten ditu, laburpen gisa, behaketetatik edo esperimentuetatik ondorioak ateratzeko. • Ikerketaren emaitzak koherentziaz eta argitasunez jakinarazten ditu, bitarteko digitalak, idatzizkoak edo ahozkoak erabiliz.

2. Laborategiko oinarrizko materiala erabiltzea, hautatzea, sailkatzea eta behar bezala erabiltzea.

3. Esperimentazioaren bidez garatzea lan zientifikoaren estrategia nagusiak eta hark berezkoak dituen jarrerak.

4. Iritzi propioa izatea eta hizkuntza zientifiko egokia eta testuinguruarekin bat datorrena erabiltzea, lan dokumentalaren eta/edo esperimentalaren emaitzekin lotutako monografiak eta txostenak egitea, informazio zientifikoa bilatuz, hautatuz eta interpretatuz, eta hainbat iturri eta denetariko euskarriak erabiliz.

5. Biologia eta Geologia etengabe eraikiz doala ohartzea, hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertzea eta konparatzea, bai eta debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioestea ere, era horretan pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziak pertsonen prestakuntza integralerako balio duela konturatzeko, eta gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.

6. Izaki bizidun guztien funtzio biologikoak eta ezaugarri komunak deskribatzea, eta haien osaerarekin eta antolaketa-mailaekin lotzea.

7. Zelulak eta ehunak antolatzeko moduak interpretatzea, ezaugarri morfologikoak eta fisiologikoak aztertuz hainbat zelula, animalia-ehun eta landare-ehunetan.

• Diseinatutako esperimenturako egokiak diren gailuak eta teknika esperimentalak erabiltzen ditu.

• Lanak autonomiaz planifikatzen ditu.

• Badaki zein diren laborategikosegurtasun-arauak eta errespetatzen ditu, erabilitako tresnak eta materiala zaintzen ditu, eta sortutako hondakinen kudeaketa-arauak betetzen ditu.

• Fenomeno biologikoak eta geologikoak ezagutzeko eta interpretatzeko jakin-mina eta gogoa erakusten ditu.

• Banakako lanean ahalegina egiten du eta autonomiaz jarduten du, lanean arduraz eta modu aktiboan jardunez.

• Talde-lanaren aldeko jarrera adierazten du, zereginetan lankidetzara eta parte-hartze arduratsuko jarrera agertzen du, eta desberdintasunak pertsonetikiko errespetuz eta tolerantziarekin onartzen ditu.

• Eztabaidetan aktiboki parte hartzen du, arrazoiak emanez eta besteen txandak eta iritziak errespetatuz.

• Informazioa askotariko iturrietan eta zenbait formatutan kontsultatzen, bilatzen, identifikatzen eta adierazten du.

• Testu zientifiko bat oinarri hartuta, informazioa atera eta interpretatu, eta zorrotzasunarekin eta zehaztasunarekin argudiatzen du, terminologia egokia erabiliz.

• Informazioa kritikoki aukeratzen eta interpretatzen du, eta azalpen zientifikoak eta bestelakoak behar bezala bereizten ditu.

• Hizkuntza zientifiko egokia eta koherentea erabiltzen du, ahoz zein idatziz, eta argi eta ordenan hitz egiten du.

• Izaki bizidunak definitzen dituzten bizi-funtzio hauek deskribatzen ditu: nutrizioa, erlazioa eta ugalketa.

• Izaki bizidunen antolaketa-mailak interpretatzen eta erlazionatzen ditu, eta adibideak ematen ditu.

• Izaki bizidunen bioelementuak eta biomolekulak identifikatzen eta sailkatzen ditu, eta izaki bizidunetan eta zelulan dituzten funtzio biologikoekin erlazionatzen ditu.

• Betetzen duten funtzioarekin zuzenki erlazionatuta dauden hiru dimentsioko osaera eta egitura duten makromolekula nagusiak ezagutzen ditu eta osagaia den monomero bakoitza bereizten du.

• Zelula-egitura osatzen duten oinarrizko molekulen ezaugarri fisiko-kimikoak eta propietateak bereizten ditu, eta izaki bizidunen uniformetasun molekularra azpimarratzen du.

• Zelula izaki bizidunen egitura-unitate, unitate funtzional eta genetiko gisa interpretatzen du.

• Zelula-antolaketa-mailak identifikatzen ditu, ehun-mailara nola iristen den interpretatzen du.

• Eredu eta prestakin mikroskopikoetan zelula prokariotak eta eukariotak, animaliak eta landareak bereizi eta haien egiturak izendatzen ditu.

• Zelula-organuluak identifikatu eta eskema bidez adierazten ditu, eta haien egitura eta funtzioa deskribatzen ditu.

• Mitosiaren eta meiosiaren faseetako bakoitzean oinarrizko gertakizunak deskribatzen ditu eta zelularen

8. Zonalde biogeografiko eta bioma nagusiak desberdintzea, izaki bizidunen banaketan eragina duten faktore geografiko, geologiko eta biologikoekin lotuz.

9. Bioaniztasun kontzeptua eta eboluzio-prozesuarekiko harremana interpretatzea, biosferaren egonkortasunerako eta pertsonen bizi-kalitatearako duen garrantzia justifikatuz, hura arriskuan ipintzen duten zenbait giza jarduera seinalatuz, hura galtzearen aurrean kritikoa izanez eta hura mantentzeko ekintzak proposatuz eta gauzatuz.

10. Landarea sistema konplexua dela ohartzea, eta haren tamaina, egitura, antolaketa eta funtzionamenduak ingurune fisikoari edo biologikoari emandako erantzun jakin bat direla, espezie gisa mantentzeko eta bizirik irauteko.

banaketaren prozesuen garrantzia biologikoaz ohartzen da.

- Animalia- eta landare-ehunak haien zelula bereizgarriekin erlazionatzen ditu eta bakoitzari dagokion funtzioa esleitzen dio.
- Animalia- edo landare-organoen ehunak identifikatzen ditu marrazkietan, argazkietan edo mikroskopiko prestakinetan.
- Zelulen, landare-ehunen eta animalia-ehunen prestakin mikroskopiko errazak egiten ditu.

• Mapan bioma eta zonalde biogeografiko handiak bereizten eta kokatzen ditu.

• Zonalde biogeografiko eta bioma handietako banaketan eragina duten aldagai klimatiko nagusien zerrenda egiten du

• Mapa biogeografikoak eta landare-di-mapak interpretatzen ditu, eta landare-formazio nagusiak dagozkien biomekin lotzen ditu.

• Latitudea, altitudea, kontinentaltasuna, uhartetasuna eta oztopo orogenikoak eta itsas oztopoak espezieen banaketarekin erlazionatzen ditu, eta badaki uharteak biodibertsitateari eusten eta haiei eboluzionatzen laguntzen dieten lekuak direla.

• Iberiar-penintsulako zonalde eta ekosistema nagusiak identifikatzen ditu, bai eta espezie adierazgarrienak ere.

• Izaki bizidunen sailkapen- eta nomenklatura-sistemak ezartzeko erabili diren irizpide zientifikoak adierazten ditu.

• Gako dikotomikoak erabiltzen ditu izaki bizidunen talde taxonomiko handiak identifikatzeko eta sailkatzeko.

• Biodibertsitate kontzeptua espezieen bariedade eta ugartasunarekin erlazionatzen du.

• Espezieak sortzea eragiten duten eboluzio-prozesuak erlazionatzen ditu (hautespen naturala, banakako aldakortasuna, espeziazioa...), biodibertsitatea handitzeko oinarritzko gako diren aldetik, eta mesede egiten dioten faktoreak identifikatzen ditu.

• Espezie endemiko kontzeptua definitzen du,

• Biodibertsitateari eustea biosferaren egonkortasunari eta gizakiaren bizi-kalitateari dakartzkion abantailak azaltzen ditu.

• Biodibertsitatearen galeraren kausa nagusien eta espezieak galtzea eragiten duten mehatxu nagusien adibideak ematen ditu eta murrizteko neurriak proposatzen ditu.

• Ekosistemetan espezie aloktonoak sartzetik eta ugalketan gizakiak esku hartzetik sortutako eragin nagusien aurrean jarrera kritiko arrazoitua hartzen du.

• Uren eta gatz mineralen xurgatzea, transpirazioa, gasen trukea eta gutazioa nola egiten diren deskribatzen du, bai eta izerdi landugabearen eta landuaren osaera eta haiek garraiatzeko mekanismoak ere.

• Fotosintesiaren fase bakoitzeko ekintza nagusiak zehazten ditu eta biosintesi-prozesu gisa duten garrantzia argudiatzen du, Lurrean biziari eusteko ezinbestekoa den aldetik.

• Landareen ugalketa asexualaren eta sexu bidezkoaren mekanismoak eta prozesuak deskribatzen ditu: polinizazioa, ernalketa, haziak zabaltzeko mekanismoak, erneketa motak eta fruituak hedatzea.

11. Animalia sistema konplexua dela ohartzea, eta haren tamaina, egitura, antolaketa eta funtzionamenduak ingurune fisikoari edo biologikoari emandako erantzun jakin bat direla, espezie gisa mantentzeko eta bizirik irauteko.

12. Planetaren barruko eta kanpoko egitura eta osaera deskribatzea, Lurra ikertzeko hainbat metodo erabiliz, lortutako datuak interpretatuz, eta haiek litosferako plaken dinamikarekin lotuz.

- Nutrizio heterotrofoaren ezaugarriak, mota nagusiak eta nutrizioaren eta elikaduraren arteko desberdintasunak bereizten ditu.
 - Ornogabeen eta ornodunen digestio-aparatuak alderatzen ditu eta digestio-aparatuko organo bakoitza egiten duen/dituen funtzioekin erlazionatzen du.
 - Zirkulazio irekia eta itxia (sinplea, bikoitza, ez-oso eta osoa) hura duten animaliekin erlazionatzen du, abantailak eta eragozpenak adierazten ditu, eta animalien arnas pigmentuen garrantziaz ohartzen da.
 - Linfaren osaera adierazten du eta haren funtzio nagusiak identifikatzen ditu.
 - Arnas aparatuak eta dagozkien taldeak alderatzen ditu, adierazpen eskematikoetan, eta arnasketa zelularren eta arnasketaren esanahi biologikoak bereizten ditu.
 - Iraizte-prozesua definitzen eta azaltzen du, eta animalia taldeak irazte-mekanismoen eta -produktuen bidez sailkatzen ditu, batik bat ornodunei dagokiena.
 - Hartzaile motak identifikatzen ditu, eta neuronen nerbio-bulkadaren transmisioa azaltzen du.
 - Nerbio-sistema mota nagusiak bereizten ditu ornogabeetan eta ornodunetan, bereziki ornodunen nerbio-sistema zentrala eta periferikoa eta nerbio-sistema somatikoaren eta autonomoaren arteko desberdintasunak.
 - Guruin endokrinoen eta exokrinoen arteko aldeak deskribatzen ditu, eta jariatzen dituzten hormona garrantzitsuenekin eta haien funtzio erregulatuzaileekin erlazionatzen ditu.
 - Ugalketa asexualaren eta sexu bidezkoaren arteko desberdintasunak deskribatzen ditu, organismo zelulabakarretan eta zelulanitzetan, eta bakoitzaren abantailak eta eragozpenak argudiatzen ditu.
 - Animalien ugalketan parte hartzen duten prozesuak bereizten ditu: gametogenesisia, ernalketa motak, enbrioiaren garapenaren faseak, arrautza motak, segmentazio- eta gastrulazio-prozesuak.
 - Animalien ziklo biologikoen faseak aztertzen ditu eta animaliek airean, uretan eta lehorrean egindako moldaera nagusiak identifikatzen ditu.
- Lurraren barrualdea aztertzeko zenbait metodotatik (sismologikoa, grabimetrikoa, magnetikoa, termikoa, etab.) ateratako datuak behar bezala interpretatzen ditu, eta haien ekarpenak eta mugak bereizten ditu.
- Lurraren barrualdearen egitura eta osaera laburtzen eta eskema bidez adierazten du, eta geruzak, etenak eta trantsizio-zonak bereizten ditu.
 - Lurraren modelo geokimikoa eta geodinamikoa aztertzen ditu, bai eta bakoitzak Lurraren egituraren ezaguerari zer ekarpen egiten dion ere.
 - Materiaren eta energiaren barne-zirkulazioa geruza kanpokoenen mugimenduekin erlazionatzen du.
 - Kontinenteen jitoaren teoria ulertzen du eta plaken tektonikaren teoriaren garapenerako ekarpen garrantzitsuenak adierazten ditu.
- Mapa batean plaka litosferiko nagusiak eta ertz motak identifikatzen, sailkatzen eta kokatzen ditu, eta haiekin lotutako fenomenoak azaltzen ditu.
 - Sumendien eta lurrikaren zonaldeak, mendikateen eraketa, ozeanoko hondoa zabaltzea eta materialen banaketaren simetria interpretatzen ditu.
 - Plakekin lotutako ekintza nagusiak eta haiek sortzen dituztenak erlazionatzen ditu: barne-konbekzioko

<p>13. Arroka mota nagusiak identifikatzea -haien osaera eta testura lotuz haien sorrera-prozesuarekin-, batik bat aplikazio sozialetan edo industrialetan erabilitako materialak.</p> <p>14. Lurreko material eta egitura geologikoen aniztasuna ikuspegi global batetik interpretatzea, arroken sorrera-prozesuak aztertuz, plaken tektonikarekin lotuz, eta barruko eta kanpoko prozesu geologikoen arteko harremana kontuan hartuz.</p>	<p>korronteak, kontinenteen itxurazko mugimendua, erliebeen gaztetzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> •Laginetan gehien agertzen diren arroka motak aukeratzeko eta identifikatzeko, laborategian eta lekuan bertan. • Arroka magmatiko ohikoenak bereizten ditu eta haien testura eraketa-prozesuarekin erlazionatzen du. • Arroka metamorfiko nagusiak bereizten ditu eta haien testura izan duten metamorfismo motarekin erlazionatzen du. • Lurrazalean gehien agertzen diren arroka sedimentarioak sailkatzen ditu, jatorriaren arabera. • Mineral eta arroka mota jakin batzuen zenbait erabilera eta gizarlean edo industrian interesgarriak diren zenbait aplikazio zehazten ditu. <ul style="list-style-type: none"> •Magma motak zehazten dituzten faktoreak bereizten ditu, osaeraren arabera sailkatzen ditu eta magmaren kokalekuan sortutako sakoneko eta azaleko egiturak interpretatzen ditu. • Sumendi-jarduera motak magmaren ezaugarriekin erlazionatzen ditu eta sumendi-erupzio batean isuritako produktuak bereizten ditu. •Metamorfismoa hura baldintzatzen duten faktoreen arabera sailkatzen du. •Egitura sedimentario eta ingurune sedimentarioen zerrenda egiten du, diagenesi-prozesua barne. •Deformazio tektoniko motak arrokkak jasaten dituen esfortzuekin eta haien propietateekin lotzen ditu. • Tolestura bateko eta faila bateko elementuak bereizten eta adierazten ditu, eta zenbait irizpideren arabera sailkatzen ditu. •Barruko eta kanpoko prozesu geologikoak eta egitura geologiko motak plaken tektonikarekin erlazionatzen ditu.
---	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

<p><u>1.ebaluaketa</u></p> <p>1.unitate didaktikoa: Izaki bizidunak, haien osaera eta antolaketa-mailak.</p> <p>2.unitate didaktikoa: Zelula, metabolismoa eta ziklo zelularra.</p> <p>3.unitate didaktikoa: Animalien eta landareen ehunak.</p> <p>4.unitate didaktikoa: Izaki bizidunen eboluzioa eta sailkapena</p> <p><u>2.ebaluaketa</u></p>

5. unitate didaktikoa: Landareen bizi- funtzioak eta ingurunerako moldaerak

6. unitate didaktikoa: Animalien bizi-funtzioak eta ingurunerako moldaerak

3.ebaluaketa

7. unitate didaktikoa: Bioklimatologia eta biodibertsitatea.

Arazo-egoera, *Suteen arriskua gure baso eta mendietan.*

- Suteen arriskuan eragina duten faktoreak: klima, landaredia, basoen kudeaketa, sozioekonomikoak
- Gure basoak: baso atlantikoko zuhaitz-espezieak
- Zuhaitz-espezie aloktono eta pirofitoak
- Gure basoen egoera

8. unitate didaktikoa. Lurraren egitura eta osaera. Plaken tektonika

9. unitate didaktikoa. Prozesu geologikoak eta petrogenetikoak. Harrien zikloa.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Ikasgai honetan 2. Mailako BIOLOGIA ikasgairako oinarritzko edukiak azalduko dira. Beraz, bereziki lehenengo bi unitate didaktikoetan sakondu beharra dago aurten.

Testu-liburuari jarraituz, azalpenak emango ditugu. Errazago jarraitzeko proiektaturiko power pointetaz, eskemataz, irudietaz, bideo edo animazioetaz baliatuko gara.

Gai bakoitzeko, ikasleek taldekako lan kooperatibo osagarriak batzutan, banakako lan osagarriak bestetan, egingo dituzte (Laburpenak, mapa kontzeptualak, praktikak, aurkezpenak, galdetegiak, artikulua irakurtzea ...).

Koaderno ezinbesteko lan-tresna izango da ariketak egiteko eta informazioa antolatzeko, eskemak, laburpenak, taulak edo irudiak erabiliz. Orokorrean, ikasleak binaka egongo dira eta aukera izango dute jarduerak egiterakoan elkarri laguntzeko.

Noizean behin, informatika gela erabiliko dugu informazio bilatzeko eta lan monografikoak egiteko asmoz. Laborategian, zenbait praktika egitea proposatuta dago: zelula eta ehun ezberdinen behaketa mikroskopioan eta zenbait organoren disezioak. Horiek talde-lanean gauzatuko dira.

Gai batzuetan sakontzeko, dibulgazio-artikulu zientifikoak irakurriko dituzte eta horiei buruzko informazio garrantzitsuena aukeratuko dute, zenbait lan, galdetegi edo hausnarketa egiteko. Gauza bera egingo dute zenbait dokumental eta pelikularekin.

Horrez gain, institutuak aurrera eramaten dituen proiektuak landuko ditugu:

-Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

- Irakurketa Plana: Arloko testu espezifikoko ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

- HTB: Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

- Hezkidetzeta (Aniztasuna): Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.

- Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

- Agenda 21: Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratu da.
- IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Baliabideak

- Testu liburua: Ibaizabal argitaletxeko Biologia-Geologia
- Ibaizabalen eduki digitalak
- Irakasleak sortutako eskemak, apunteak, fitxak, ariketak
- CSIC-ek sortutako Arbol app gida digitala.
- Google sites eta classroomen jarritako material digitala.
 - Youtubeko bideoak
 - *Zientzia.net*, *cellsalive*, *alaitznatura*, *biologia.edu*, CEIDA-eskolako agenda 21eko bloga, *bioygeo.info* eta beste blog batzuetatik
 - *Elhuyarren* eta *Consumer* aldizkarien artikulua eta *EITBkoak* edo prentsa berrietatik.
- Hainbat dokumental:
 - National Geographic-en “la increíble máquina humana”.
 - Ikusbit* dokumental bildumatik: Zelulak, ADNa, biziaren jatorria, eboluzioa, sumendiak, Eguzki-sistema...
 - Tierra pelikula, biomak lantzeko.

Arazo-egoera: *Suteen arriskua gure baso eta mendietan.*

- Aurten Iberiar-penintsularen ipar-mendebaldean izandako suteen larritasuna dela eta, ikasleek aztertuko dute zer faktorek duten eragina suteen arriskuan: klimatikoak, landaredia, basoen eta larren kudeaketa, sozio-ekonomikoak...
- Ikasleek ikasiko dute bertoko basoen zuhaitz espezieak zeintzuk diren, eta gida idatziak edo CSIC-eko *Arbol-app* aplikazioa erabiliz, horiek identifikatzen ikasiko dute, hosto-bilduma bat eginez.
- Mapak erabiliz aztertuko dute baso atlantikoaren eta espezie aloktono eta pirofitoen hedapena Bizkaiko lurraldean eta bereziki Uribekostako eremuan.
- Gure basoak kontserbatzeko eta suteen arriskua gutxitzeko proposamenak egingo dituzte, bai instituzioen aldetik, bai haien aldetik.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> ● Idatzizko bi edo hiru proba ebaluaketa bakoitzean. ● Ikaslearen koadernoak ● Artikuluei edo bideoi buruzko galdetegiak ● Talde-lan monografikoen aurkezpenak ● Proiektuak eta horren aurkezpena. 	<p>-Proba idatziak (azterketak) %80</p> <p>Kalifikazio-irizpideak</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontzeptuak ulertzea eta azaltzen jakitea. ▪ Irudiak, eskemak, grafikoak, egoerak edo problemak ondo interpretatzea ▪ Informazioaren aukeraketa eta balorazio kritikoa egitea.

<ul style="list-style-type: none"> • Kontrol-orriak eta behaketa-eskalak: eguneroko zein etxeetako lana, klaseko jarrera, interesa, puntualtasuna eta abar erregistratzeko 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontzeptuak aplikatzea eta dedukzioak egitea. ▪ Hizkuntza zientifikoaren erabilpen egokia. <p>Azterketen notaren batez bestekoa egiteko 3,5 edo gehiago atera behar da guztietan.</p> <p>-Txostenak, lanak, aurkezpenak %10 -Kontrol-orriak %10</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Klasea puntualtasunez etortzea. ▪ Beharrezkoa den materiala ekartzea. ▪ Eskola orduetan lan egitea ▪ Portaera aproposa izatea ▪ Interesa adieraztea, arreta jartzea, parte hartzea ▪ Ikaskideei laguntza eskaini eta errespetua adieraztea <p>Ebaluazio batean, justifikatu gabeko etortze faltak %20ra heltzen badira, ikasleak, ebaluzio jarraia izateko eskubidea galduko du.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p>	
<p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Berreskurapen-sistema:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ebaluaketa bat gairatzen ez duten ikasleek berreskurapen-azterketa egingo dute hurrengo ebaluaketaren hasieran. Gehiegizko nota 5 izango da. ▪ Ez ohiko froga: <p>Ebaluazioaren bat gairatzen ez bada berreskurapenean, ikasleek egin behar izango dute ez ohiko froga minimoetan oinarrituta. Ez ohiko froga gairatuz gero lortuko den nota 5 izango da.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

--